

# Sanjoandarrak (Maltako Zaldunak)

*El recuerdo de los sanjuanistas, Hospitalarios de San Juan de Jerusalén o la Orden de los Caballeros Malta –distintos nombres para la misma Entidad– se ha diluido en la memoria de nuestras gentes, a pesar de que su presencia en Euskal Herria fue importante, e incluso muy importante, desde el siglo XII hasta el XIX, con un patrimonio de bienes que abrazó 13.660 propiedades en solamente Navarra, según inventario de 1820.*

Euskaraz “sanjoandarrak” deituko ditugun fraide ospitalariak izenak aldatuz joan ziren beren historian. Ez da harrizkoa, izan ere nazioartekotasun handikoa izan baita Ordena hau, zortzi eskualdetan banatuta. 1113an lortu zuen Ordenak Aita Santuaren onarpena (Pascual II: *Geraudo institutori ac praeposito Hirosolimitani Xenodochii* Bulda). Nafarroak bere Priore-barrutia izan zuen.

## **Ordena ospitalari militarra**

Jerusalenera zihoazen erromesak, maizegi, eri eta elbarri iritsi ohi ziren hara. Egoerari norbaitek erantzun beharko ziola eta, Hiri Santuan bizi ziren Amalfi hiriko (Italia) merkatarri zaldun batzuek ospitale bat sortzea erabaki zuten (1084), horretarako Kalifaren baimena ere eskuratuta: horrela eratu zen Jerusalemgo San Joan Ospitalea, bere mediku, erizain eta zerbitzariekin, laster Ordena bateko Zaldunak izango zirenekin batera.

Gurutzaden mendeak ziren haiek (1095-1272), eta kristau mendebaldarrek lortu zuten denbora batez Lur Santuak aginte eta erreinu kristau batean biltzen, sarritan

konkistaren ondoren ere musulmanekin borroka armatuan zihardutela, edo tarteko bakealdi eta meniek laguntzen zutela.

Jerusalengo Erreinu Latinoko segurtasun-ezak eta erromesen betiko premiek eraman zituzten jatorriz ospitalariak ziren Ordena eta zaldunak armak hartzera, XII. mendean. Lehenengo, Erramun Puy-koa Maisu Nagusiak (c. 1080-1160) Elkarteari Ordena-Erregela bat eman zion, San Agustinenaren ildo beretik (1120) eta Aita Santuek onartuta, berori izan zen ospitalari hauek izan zuten araudia, 1478a arte.

Ondorioz, handik aurrera hasierako ospitalariak soldadu ere bihurtu ziren. Izaera bikoitz berri hau 1201ean legezatu zen: hau da, handik aurrera “kapilauen”, “komentuko anaien” eta “eskulaneko anaien” ondoan, “anaia zaldunak” egongo ziren Ordenan, zaldun armatuak esan nahi da, horretarako laugarren boto batekin.

## **Ibilera astindua**

Ordenaren ibilera ez zen samurra izan, hainbat gerra galduren ondoren Ordenako Egoitza Nagusia lekuz aldatuz joan zen:



Jerusalen (1084-1187), Lur Santuetako Akre (1188-1291), Txipre (1291-1310), Rodas (1310-1523), Malta (1530-1789).

Hogeita bost (25) priore-barruti zituen Ordenak, eta horietako bana egon ziren Akitanian eta Nafarroan. Guztien egiteko nagusiak limosna eta ondasunak bildu, hauek behar bezala zaindu eta emaitzak eta aurrezkiak Ordena horren bidez Lur Santu eta Ordenako premietara laguntza gisara bidaltzea izan ohi zen, gaur egun Ostiral Santuko eliz limosnekin egin ohi den antzera.

Aro Modernoko sanjoandarrek, beren Egoitza Nagusiarekin batera, gotorleku propioa Maltako Irlan zeukaten, han baitzuen turkoen kontrako ontziteria, bera zen mendebaldeko Mediterraneoaren zainzaile, berau Berberriako kortsarioetatik garbitzen zuena, eta batez-batez ere Maltatik gobernatzen zen Europan hedatuta zegoen Ordena sanjoandarra, behar, komeni edo interesagarri zenean urtero martxotik irailera itsas-uretara irtenaldi armatuak eginez.

Aro Garikidea 1798an hasi zen Maltan, Napoleonek ontziteria handi batekin Irla eta bertako gobernu bere eskuetan hartu eta Ordenako Maisu Nagusiari agintea kenduta, Malta, Gozo eta Cominoko irlak Frantziarekin lotu zituenean. Geroztik, Ingalaterrak hartu zuen Irla (1814), maltatarrek independentzia eskuratu zuten arte (1964,

1974). Berrikitan, Ordenak itzuli ahal izan du Maltara: Estatuak Aingeru Santuaren gotorlekua eman dio, extra-lurraldetasuna duela (1998).

Euskal Herrira gatzela, gogora dezagun 1120az geroztik egon zela hemen Ordena hau. Nafarroako Barañain eta Bargotan (Mañeru) izan zituen Etxe nagusiak, eta beste hogeiren bat txikiago ere bai, ondasunak 240 herritan zituztela eta 15 hiri eta hiri-bildutan. Horietako batzuek beren eskualde barrutia zuten. Iparraldean Irisarri eta Apat-Ospitalea aipatu behar dira; Gipuzkoan, Arramele Tolosakoa eta Sta. Katalina Donostian.

Desamortizazioak ere harrapatu zuen Espainian ospitalarien Ordena bere ondasun eta Etxetan (1837), eta Euskal Herrian iragan luze hartatik Etxe bakarra geratzen zaigu gaur bizirik: Gesaltza Añanako moja gomendarien komentua.

Egun, nazioartean oso izaera bitxia du Maltako zaldunen Erakundeak: Urtetako ibilera zailaren ondoren (1798-1834), Erroman du Ordenak bere Egoitza Nagusia Estatuen arteko harremanetan extra-lurraldetasun beregaina duela. Ehun eta gehiago Estatuk ditu harreman ofizialak Ordena honekin, eta ONU behatzaile-eserlekua du.

**Joseba Intxausti**